

1. Bidaia aurrekoak
2. Ekipajea
3. Bidaiak eta garraioa
- 4 Kanpamenduetan zaudenerako gomendio praktikoak
5. Itzulera
6. Aste batzuk geroago...

1. Bidaia aurrekoak:

- Txertoak: ez da inolako txertorik behar hara joateko.
- Pasaporte: indarrean. Beharrezkoa da.
- Aldez aurretik jakinarazi behar da zein familiarengana joango zareten.
- Kanpamenduetan sakelako telefonorako estaldura badago, baina nahiko eskasa.

2. Ekipajea

- Ekipajerako gehieneko pisua: **20 kilo.**
- Eskuko poltsa: txikia izan behar du eta gehienez **5 kilo.**
- Itxi ondo maletak edo prezintatu aireportuan, ustekabeak saihestuko dituzu.
- Garrantzitsua!! Ipini poltsa bakoitzean kartel bat datu hauekin:

ZURE IZENA

WYLAYA ad.: Smara

DAIRA ad.: Bir Lehlu

Tf. ZENBAKI BAT

Jantziak:

- Oinetako erosoak (harea eta harri artean ibiltzeko). Gomendagarria da crocs modukoak eramatea, dutxarako balio dute eta gainera, haimetan sartu eta irten ibiltzeko oso erosoak dira (bestela oinetakoak eranzten emango duzue eguna)
- Gauerako galtzetin sendoak
- Praka erosoak
- Egunerako jantzi arinak, baina gauerako txamarra sendoa.
- Gaez tenperatura asko jaisten da, beraz, eraman arropa egokia.
- Bestelakoak:

Eguzkitako betaurrekoak (eguzkitik eta haizetik babesteko)

Bisera, txanoa edo zapiren bat

- EZ da beharrezkoa lo-zakua eramatea, toki asko hartzen du eta han oso manta onak izaten dituzte.

Ez eraman arropa asko, behar-beharrezkoa bakarrik, gero erabiltzen ez baduzu, damutu egingo zaizu horrenbeste leku hartu izana. Zortzi egunerako bizpahiru muda eta txamarra bat nahikoak dira. Eurek ez dute pijama eta halakorik erabiltzen, eguneko arroparekin egiten dute lo, guretzat lotarako malla bat eta barruko kamiseta bat nahikoak dira.

Nezeserra:

- Linterna eta pilak (kanpamenduetan ez dago kale-argirik)
- Crema hidratantea eta ezpainetarako babesak.
- Hortzetarako eskuila eta pasta (agian likidoa hobe, erosoagoa da)
- Klinexak
- Komuneko papera. Etxeetan komuna egoten da, baina gogoan izan Errefuxiatuen kanpamenduetara zoazela.
- Orrazia
- Toalla hezeak (jaio-berrienak). Oso egokiak dira oinarrizko garbiketarako.
- Emakumeen kasuan: konpresak, tanpoiak eta abar.

Botikina:

- Medikamendurik hartzen baduzu, ez ahaztu. Han ez duzu aurkituko.
- Asma arazoak edo badituzu, hitz egin medikuarekin.
- Tiritak.
- Paracetamola edo antzekoa.
- Fortasec (beherakoaren kontra)
- Almax edo antzekoa.

Elikagaiak:

Ez da beharrezkoa norberarentzat jakirik eramatea, hango elikadura gurearen oso antzekoa da:

GOSARIA:

Kafe-esnea, galletak edo ogia, marmelada eta gurina, jogurtak.

BAZKARIA/AFARIA

Patata frijituak

Arrautzak

Kus-kusa

Patata egosiak

Ahuntz-okela

Gamelu-okela

Entsaladak: tomatea, patatak, arrautza, tipula, atuna...

Pasta, lentejak, arroza, babarrunak...

EDARIA:

Botilako ura, limonada, gamelu-esnea...

Gogoan izan zuri eskainiko dizuten janaria laguntza humanitariotik jasotzen dutena dela. Beste gauza batzuk erosi egingo dituzte zure egonaldia atseginagoa izan dadin.

Saia gaitezen ahalik eta eskerronekoen izaten eskaintzen digutenarekin. Janaria ez alferrik galdu, eta errespetuz jokatu, dutena baino gehiago eskainiko digute eta.

3. Bidaiak eta garraioa

Gogoan izan garai horretan hainbat hegaldi izango direla bertara eta aireportu bakarra dagoela (Tindufeko aireportu militarra), beraz, atzerapenak eta ordu-aldaketak gerta daitezke. Pazientziaz jokatu.

Hegaldia Air Algerie konpainiarekin egiten da.

Euskal Herritik, hegaldiak 3 bat ordu irauten du (Oranen edo Aljeren egiten du geldialdia baina hegazkinetik jaitsi gabe).

Eraman ura eta ogitartekoren bat biderako (itxaronaldiak oso luzeak izan daitezke).

Hegaldia gaez iristekoa izaten da; beraz, eraman txamarraren bat eskura.

Eraman eskura pasaporte eta boligrafo bat Tindoufera iristean (aireportuan orri bat bete beharko duzu).

Tindoufen ekipajea jasotzea kaotiko xamarra da (oso leku txikia da), pazientzia eduki eta lagundu maletak eta paketeak zintatik ateratzen, guztiok laguntzen badugu, errazagoa egiten da dena.

Tindoufeko aireportua aireportu militarra da **DEBEKATUTA DAGO ARGAZKIAK EGITEA.**

Garraiorako orga gutxi izaten dira, beraz, ohiko ekipajea badaramazu, utzi orgak benetan behar dituztenentzat. Oso metro gutxian mugitu beharko ditugu maletak.

Aireportutik irten baino lehen, baliteke ekipajea miatzea, eta Aljeriako poliziak bertan duzun zerbait hartu nahi izatea. Esan ezetz, besterik gabe (arabieraz "La"), ez da beharrezkoa liskarrik eragitea.

Gero aireportuko sarreran elkartuko gara, aprobetxatu komunera joateko, eta apur bat lasaitzeko.

Wilayen izenak aipatzen joango dira -Dagla, -Smara-, -Auserd-, -Aiun-, -Rabuni-, eduki maletak pilotuta eta ez galdu bistatik zure wilayaren arduraduna izango den pertsona, berak eramango zaituzte autobus edo kamioietara (denok galduta ibiliko gara, eta gauza asko daude mugitzeko (maletak, paketeak...), ondo antolatzea eta laguntzea ezinbestekoa da.

Baliteke pertsonak autobusez eta ekipajeak kamioietan eramatea. Jaistean jendea egongo da zain. Hartu zure ekipajea eta entzun Frente Polisariokoak emandako

jarraibideak. Garrantzitsua da dena oso argi ulertzea: jarduerak, noiz eta nola egingo dugun itzulera eta abar.

Hortik aurrera sentipenez eta emozioz betetako esperientzia hasiko da. Hori zuen gauza da.

Hala ere, gogoan izan honako gomendio praktiko hauek:

5. Kanpamenduetan zaudenerako gomendio praktikoak

- Gogoratu ez dela bidaiatza turistikoa bat, eta ez duzula guk hemen dugun erosotasunik aurkituko. Herri xumea eta abegikorra dira, daukan guztia zuri emateko prest dagoena.

- Gogoratu beste kultura batekin bizitzen egongo garela, eta gu garela atzeritarrak. Guretzat ulertzeko zailak izan daitezkeen egoerak gerta daitezke. Gu ez goaz ezer aldatzera, ez eta hobe edo txarragoa zer den erabakitzen. Gure helburua han egotea da, haiekin bizitzen, errespetuz.

- Kanpamenduetara joaten zerenean berdin dio zenbat gauza eramaten dituzun, beti itzultzen zara eraman duzuna baino askoz ere gauza gehiago ekartzen duzulako sentazioarekin, eta egia da. Saharauiak oso abegikorrak dira eta opari pilo bat egingo dizkigute, duten onena emango digute. Saia gaitzen esker onekoak izaten.

- Alkate, mediku, irakasle eta bestelakoekin harremana izango dugu, aprobetxatu ikasteko.

- Ikasi hasaniaz hitz batzuk, "bai", "ez", "eskerrik asko", "goazen", "itxaron"... eurek eskertuko dute.

- Edaten duzun ura botilakoa izan dadila eta ez putzuetakoa, ez gaude ur hori edateko prestatuta.

- Ohituta ez zauden janariekin kontuz, ez jan gehiegi: ahuntz-esnea edo okela, gamelu-esnea...

6. Itzulera

- Itzulera bat-batekoa izaten da, oso denbora gutxirekin abisatzen dute; beraz, eduki prest ekipajea irteera aurreko gauean.

- Autobusak eta kamioiak ez dira zain egongo, ez utzi ezer egiteke.

- Tindoufeko aireportura iristean hegazkinek txartela emango dizute. Kontuan izan jende asko egongo dela beste hegaldi batzuen zain. Saia zaitetz zure ingurukoekin egoten, eta adi egon.

7. Aste batzuk geroago...

Gogoratu benetako lana itzultzen garenean hasiko dela: gure ingurukoei bizi izan dugun horren berri emanez, ekitaldietan parte hartuz eta abar... finean, herri hori bizitzen eta sufritzen ari den errealitatea jakinarazten laguntzen.

Eskerrik asko, eta bidaia on.